



# taxi kitto!



**Amama eta biloba,  
berbetan gozo**



Euskara Elkartea

### Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea  
Urkizu, 11 - solairuartera.  
20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

### Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri,  
Ana Aizpurua,  
Ekhi Belar eta  
Eibarko ikastetxeak.

### Administrazioa

Marisol Uriarte.

### Erredakzioa

Maidar Aranberri eta  
Ekhi Belar.

### Maketazioa

Ana Aizpurua.

### Azaleko argazkia

Ekhi Belar

### Copyright-a

Txikitto!

### Lege-gordailua

SS-1111/96



Gipuzkoako Foru Aldundia



- Jaimito, zergatik duzu  
ketchup pote bat belarrian?  
- Salsa entzuteko.



Jaimito jostailu dendara  
doa eta pelutzeko  
kanguru bat aukeratzen  
du. Kutxara doanean  
monopoliko billete batekin  
ordaintzen dio eta neskak  
esaten dio:  
- Hau ez da benetako dirua.  
Eta Jaimitok esaten dio:  
- Ezta kangurua ere.



Neska batek esaten dio  
mutilari:  
- Jausi egin zara?  
Eta mutilak erantzuten dio:  
- Ez, lurra triste zegoen eta  
besarkada bat ematea erabaki  
dut.



Ama bat eta bere semea  
autobusera igotzear zeuden.  
Umeak 5 urte zituen.

5 urte baino gazteagoek ez zuten  
txartela ordaindu behar. Orduan  
amak 4 urte zituela esateko esan  
zion.

Behin autobusean igota, autobus gidariak  
hauxe galdetu zion umeari:

- Zenbat urte dituzu?
- 4 urte.
- Eta noiz betetzen dituzu?
- Autobusetik jaisten naizenean.



Mutil batek esaten dio  
Ramonari:  
- Zergatik zaude likuadora eta  
guinness rekord liburu batekin?  
- Record guinness guztiak batitzeko.



- Jaimito esan  
bi izen tilde  
dutenak:  
- Baaaa, Matilde eta  
Clotilde



- Tok- tok. Zein da?  
- Abraham!  
- Ez, ez! Nor zaren esan  
arte!  
- Abraham!  
- Bakarrik esan zein zaren.  
- Abraham!  
- Barkatu baina ez dizut  
zabalduko zure izena esan arte.



- Zein da zapatilen santua?  
- San dalia.



## asmakizunak

GONA LUZEA DU  
MIHIA MOTZA,  
URRUTITIK ENTZUTEN DA  
HAREN KANTU HOTSA.  
ZER DA?

NIRI EMANDAKO OSTIKOEI ESKER,  
EGITEN DITUZTE HORIEK  
JOKALDI EDERRAK.  
ZER DA?


UNIFORMEDUN GUDARIA  
ZURI ETA GORRIAK,  
GERRA OSTEAN, ORDEA,  
BURU BELTZA ETA ERREAK.  
ZER DA?







## LABIRINTOA




## SUDOKUA

		3	
3	1		2
4	3		1
			3

UXUE  
UXUE  
ARIANE  
IRATI AS  
ARAI  
JARE  
NAIA  
ITSASO


9



## LABIRINTOA



7 desberdintasunak



Hiart Vazquez  
Irati Astigarraga  
Naia Astigarraga  
Jare Arzuaga  
Araia Lafuente  
Uxue Cristonal  
Ariane Lobato

# Denborapasak

## 7 desberdintasunak




## Lehiaketa




Zaid sariak jasotzen.

### Aurreko hileko irabazlea, Zaid Ah Daddou

Zorionak Zaid! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko kamiseta zuretako! ZORIONAK txapeldun!



# MARGOTZEKO



-  1
-  2
-  3
-  4
-  5
-  6
-  7



**Liher eta Kontxi:**

# “Burua %100 martxan izaten genuen eskolako gauzak egiteko”

Liher Arrillagak 9 urte ditu eta Arrateko Andra Mari ikastetxeko ikaslea da. Bestetik, bere amamak, Kontxi Baskaranek, 70 urte ditu. Amama eta iloba elkarrizketa honetan batu ditugu eta aukera polita izan da Liherrek bere amamaren inguruan gehiago jakiteko. Nola aldatzen diren sasoiak!



**- Umea zinenetik zenbat aldatu da Eibar?**

Esango nuke orain ume gutxiagok jolasten duela kalean. Lehen kalean jolasten genuen ume guztiok. Ez genuen makinarik, ez telebistarik... eta lagunak kalean elkartzen ginen.

**- Zeren falta igartzen duzu? Zer nahiago zenuke lehen bezala egotea?**

Ez nuke ezer aldatuko. Lehen gauza batzuk genituen eta orain beste batzuk, baina guztiak dira onak.

**- Zertara eta non jolasten zenuten?**

Sokasaltoan, ezkutatzen... Horrelakoetan jolasten genuen normalean. Gaiztakeriak egiten genituen (barreak).

**- Ordenagailu eta internet barik zelan konpontzen zineten eskolan?**

Burua erabiltzen genuen. Burua %100 martxan izaten genuen eskolako gauzak egiteko. Informazioa hiztegietan bilatzen genuen edo ahal zen moduan.





Sasoi hartan liburutegia egongo zen, baina ez ginen joaten.

**- Neskak eta mutilak elkarrekin zeudeten eskolan?**

Ez. Nik mojekin ikasi nuen eta han neskak bakarrik geunden.

**- Eta kalean elkarrekin jolasten zenuten?**

Bai, kalean bai.

**- Etxean berdin laguntzen zuten neskek eta mutilek?**

Ez, neskek bakarrik laguntzen zuten.

**- Udan oporretan joaten zineten?**

Ez. Batzuk bai, baina ni sekula ere ez. Eibarren gelditzen ginen.

**- Kotxerik bazenuten?**

Umea nintzenean ez genuen kotxerik.

**- Noiz eduki zenuten lehena?**

Nire mutil-lagunak autoa zuen, baina nik inoiz ez dut gidatu.

**- Auto barik nola ibiltzen zineten toki batetik bestera?**

Treanean. Kuadrilla guztia treanean joaten ginen edonora eta egun guztia kanpoan pasatzen genuen. Primeran gainera!

**- Noiz sartu zen lehen aldiz telebista zuen etxean?**

Telebista nahiko azkar sartu zen etxean.

“Etxean mutilek ez zuten laguntzen, neskek, berriz, bai”

**- Zein programa ikusten zenuten?**

Nik gutxi ikusten nuen. Lanera joaten nintzen eta gero egun guztia lanpetuta ibiltzen nintzen.

**- Eta irratia entzuten zenuten?**

Bai, irratia bai.

**- Noiz izan zenuen lehen kontaktua ordenagailu batekin?**

50 urte inguru nituenean. Esperientzia ona izan zen. Lanerako ez nuen idazteko-makina elektrikorik ere eduki, baina gero, esan bezala, etxerako ordenagailua erosi genuen.

**- Gaztetan euskara erabiltzen zenuen?**


Ez, orduan den-dena gazteleraz egiten genuen. Nire aitak ezin zuen euskaraz egin eta, eginez gero, zigortu egiten zuten.

**- Birziklatzen zenuten?**

Ez, baina sasoi hartan ez genuen gaur bezain beste plastiko erabiltzen.

**- Zelan gogoratzen dituzu herriko jaiak?**

Ondo! Jai guztiak gustatzen zitzaizkidan. Kuadrillan irteten ginen eta ondo pasatzen genuen. 17 urte nituenean irten nintzen lehen aldiz jaietan kuadrillarekin. Dantzaldira joaten ginen.



ni bai artista!

## Kartoizko autoak

### OSAGIAK eta MATERIALA:

- Komuneko paper biribilkiak
- Kartoia
- Guraizeak
- Koloretako margoak
- Itsasgarria
- Gantxoak



### Nola egin:

- 1.- Komuneko paper biribilkiak gustuko koloreekin margotu.
- 2- Biribilak margotu kartoizko orri batean eta moztu. Zirkulu bakoitza beltzez eta zuriz margotu gurpilak egiteko.
- 3- Margotutako komuneko paper biribilki bat hartu eta laukizuzenean moztu kotxetik guztiz kendu barik, pilotuaren jarlekua egiteko tolestu behar delako.
- 4- Zirkulu txiki bat moztu eta bolantea izango balitz bezala dekoratu. Itsatsi eta kitto.
- 5- Gurpilak gantxoekin finkatu eta auto bakoitza gustuko duzuen moduan dekoratu: zenbakiekin, marrekin edo bestelako marrazkiekin.

## Goazen arrantzara!

Ondorengo pausoak jarraitzen badituzue arrantza-joko dibertigarria egingo duzue ti-ta batean. Margotu arraintxoak koloretako kartulinetan edo plastikozko orrietan ura erabili behar baduzue irudimena erabiliz. Arrainen ahoan zulotxo bat egin eta pasa bertatik klip bat. Hari edo artile zati bat lotu makiltxo bati kanbera egiteko eta lotu hariari iman txikitxo bat. Jarri arrainak kubo batean, urarekin edo ur gabe, eta denok arrantzara!





## Azukre kristalduzko piruletak

### OSAGIAK eta MATERIALA:

- Edalontzikada bat ur
- 3-4 edalontzikada azukre
- Jakientzako koloregaiak
- Izozkiak egiteko zotzak
- Arropa esekitzeko pintzak
- Edalontziak eta platerak
- Kazola eta egurrezko koilara bat
- Aluminiozko papera edo sukaldeko papera
- Heldu baten laguntza, ur azukreztatua egosteko



### Nola egin:

- 1.- Jarri kazolan ura berotzen. Gehitu azukrea, pixkanaka, eta eragin. Jarraitu, nabaritu arte ez dagoela azukre gehiago urtzerik.
- 2.- Ez utzi luzaroan irakiten; denbora gehiegiz egosiz gero, belztu egingo da nahastea, eta karamelua egingo zaizu. Almibar zurixka bat lortu behar dugu esperimentu honetarako.
- 3.- Busti izozki zotzak prestatu berri duzun almibarraz, eta utzi lehortzen. Zutik eusteko, arropa esekitzeko pintzekin heldu ditzakezu.
- 4.- Bota nahastea edalontzietara. Nahi izanez gero, gehitu koloregaia eta urrinak. Nahastea hoztutakoan (oso garrantzizkoa da hotz egotea), jarri izozki zotzak edalontzietan, hondoa ukitzen ez dutela. Erabili pintza bat horrela eusteko. Estali aluminiozko paperez edo sukaldeko paperez, hautsik ez sartzeko.
- 5.- Piruletak egiteko astebete eta bi aste bitarte beharko ditugu (inguru baldintzen arabera), baina prestatu eta ordu gutxira ikusiko duzu azukre kristalak nola hasten diren handitzen. Kristalak behar bezainbeste handitutakoan, atera piruletak eta jarri edalontzi batean (pintza batekin eutsita); utzi zenbait orduz lehortzen, eta dastatu zure piruletak!!

## Kiwi eta txokolate piruleta

Kiwi zuritu eta xaflatan moztu. Egurrezko makiltxo bat sartu xafla bakoitzean, piruleta bat izango balitz bezala. Txokolatea zatitu, kristalezko katilu batean utzi eta urtu (maria bainuan edo mikrouhinean). Kiwi piruletak txokolatean sartu (erdiraino edo osorik murgilduta) eta minutu batzuetan utzi txokolatea gogortu arte.





Munduko hegazti hegalaria azkarrena belatza da. Hirurehun kilometro orduko abiadura ere har dezake airean goitik behera murgiltzean. Uso gaixoa, ikusi ere ez du egin...



Ba al zenekien behiek eskailerak igo ditzaketela baina ez dakitela horiek nola jaitsi? Izan ere, beherantz doazenean belaunek ezin diete eutsi behiaren pisuari.



Zergatik hartzen dute hexagono-itxura elur-malutek? Horri horrela da ur-molekulek egitura hori hartzen dutelako, ura solido-egoeran dagoenean. Hainbat eta hainbat dira fenomeno hori behatu eta aztertu duten matematikariak.




Lur-planetako bizitzaren % 94 itsasoan dago.



Zenbat kolore bereiz ditzake gizakiak? 10 milloi kolore



Usaimena... zenbat usain bereiz dezake gizakiak? Billoi bat usain ezberdin.



Kolibriaren bihotzak 1.000 taupada egiten ditu minutuan.



Pertsonok 12 bider kliskatzen ditugu begiak minutuan.



Inurriak bere gorputzaren pisuaren 20 halako jaso ditzake.



Marrazo baleak 4.500 hertz ditu.





## Hazi Txiki 6 urtetik aurrera

Naturan dagoen prozesurik sinpleena abentura kilikagarri bilaka daiteke idazlearen eskutik eta irudigilearen begiz. Hazi Txiki, ipuin honetako protagonista, hegan ari-tuko da batetik bestera, paraxuta zabalik, harik eta harkaitz handi batzuk ikusi arte. Bertan lur hartuko du. Baina orduan aldaketa harrigarriak gertatuko zaizkio!



## Enigmak 8 urtetik aurrera

Goza ezazu enigma-sorta hau argituz, pentsatzeko bi modu desberdin praktikan jarrita: enigma batzuk logikaren bidez ebatziko dituzu; beste batzuk, irudimenaren bidez. Zeure kabuz, taldeka edota familian jardun dezakezu. Bihur zaitez benetako detektibea, bilatu pistak, erabili burua eta ebatzi enigma!



## Egun gorriak 10 urtetik aurrera

Lagundu Izarri bere buruarengan sinesten, ametsak betetzen eta amore ez ematen inoiz! Izar eta Ekhi hamabi urteko neba-arreba bikiak dira. Nahiz eta biek futbola maite duten, familiako kide batzuek tratu desberdina ematen diete. Horrez gain, Izar nerabezaroan sartuta dago bete-betean, eta bere gorputza zeharo aldatzen ari da. Izar bidean topatzen dituen oztopo guztiak gainditzen saiatuko da.

## ARMIARMA SAREA (La Salle ikastetxea)

La Salle ikastetxeko ikasleak jolas dibertigarri hau eskaini ziguten martxoan. Armiarma Sarea jolasean parte-hartzaile batzuk harrapatzaileak izango dira eta horixe egin beharko dute, gaine-rakoak harrapatu. Harrapatzen dutena tokian geldituko da.

Baina hobe izango duzue bideoa ikustea, bertan inork baino hobeto azaltzen dituzte-eta, jolasa-ren arauak.

Ondo pasa!

## jolastokixan jolasian



### BIDEOA:

<https://etakitto.eus/txikitto/la-salle-armiarma.html>



ipuina

## Zergatik ez du Ilargiak jantzirik

Behin batean Ilargiak, amarengana hurbildu eta, hauxe esan zion:

- Aizu, amatoxo, soineko bat eduki nahi dut. Lurreko biztanleek erabiltzen dituztenak bezalako soineko bat eduki nahi dut.

- Ongi da, alabatxo. Zoaz jostunarengana eta esaiozu neurriak hartzeko.

Joan zen, bada, Ilargia jostunaren etxera. Hark neurriak hartu zizkion eta handik bost egunera itzultzeko eskatu zion. Bost egun igarota han joan zen Ilargia jostunaren etxera lasterka bizian. Soinekoa jantzten hasi zen baina ezin; laburregi eta estuegi zeukan.

- Dirudienez erratu egin naiz -pentsatu zuen jostunak bere arterako, eta neurriak hartu zizkion berriro. -Itzuli bost egun barru - esan zion Ilargiari.

Ilargia bost egun geroaro itzuli zen, soinekoa jantzi eta berriro gauza bera gertatu zitzaion: laburregi eta estuegi zeukan. Jostunak berriz ere neurriak hartu, handik bost egunera itzultzeko eskatu eta, beste barik, lanari ekin zion. Bost egun haiek igaro ziren. Jostunak soinekoa



amaitu zuen baina Ilargia bere etxera sartzen ihusi zuenean ez zuen jantzi beharrik izan. Bazekien ez zuela sekula ondo edukiko, une hartan Ilargia gazta bezain biribila baitzen. Jostuna etsita zegoen erabat:

- Ezin dizut soinehorik egin, Ilargi, orain laurdena, gero erdia eta ondoren ossa zaudelako. Neurri asko hartu arren inoiz ez duzu soinekoa ondo edukiko.

Horrexegatik geratu zen Ilargia soinehorik gabe eta horrexegatik dago oraindik ere biluzik. Dena dela, Ilargia, soinekoarekin edo gabe, beti eder.

Jugoslabiako ipuina



ipuina

# Unikornio magikoa

Behin Cripitx izeneko herrialde batean 6A mailako neska-mutilak basora joan ginen. Bertan, basoan, altxorren bila ibili ginen. Hiruko taldeak egin genituen. Hirukote batean Wael, Anas eta Gorha elkartu ziren. Bigarren hirukotean Ane, Alazne eta Angela, eta hirugarrenean, berriz, Valery, Samantha eta ni. Altxorren bila hasi ginen. Sarian estutxe bat, Kolazko freshagarri-poteak, ogitarteak eta gozokiak zeuden.

Nire hirukoteari mendira joatea tokatu zitzaion. Besteei hobazulo batera joatea. Gu ez ginen hobazulora joan, bertan




egonda geundelako. Mendian geundela munstro handi bat ihusi genuen.

- Andereno! Andereno!  
- oihukatzen hasi ginen.

Andereno etorri zenean ez zuen ezer berezirik ihusi. Horrela konturatu ginen umek bakarrik ihusten genuela munstroa.

Aurrera egin ondoren landare haragijaleak ere ihusi genituen. Asho ibili ginen eta egarri handia genuen. Orduan unikornio bat agertu zen eta janaria ateratzen hasi zen: pizza, hamburgesa, espategiak... Iturri bat ere atera zuen. Gu harrituta geratu ginen, baina jaten eta edaten hasi ginen. Unikornio magikoa guri begira egon zen isil-isilik eta momentu batean hitzik esan gabe desagertu egin zen. Urduri, barrezka hasi ginen eta hobazulora joan ginen. Gure lagunei dena kontatu genien. Bat-batean esnatu egin naiz. Dena amets bat izan dela konturatu naiz.

Amaia Asprilla Ríos



zu margolari